



## Bezeroekin erlazioa

Enpresak guztiak bezala, gure enpresaren interesa ere bere produktua ahal den gehiena saltzea da. Gure produktua saltzeko bezeroak edo erosleak behar ditugu, hauek lortzeko publizitatea egingo dugu web horrietan, kaleetan eta leku publikoetan. Honetaz gain, produktuak egokia eta ona izan behar du jendeak kontsumitu edo erosi dezan.

Produktua saltzerako garaian garbi daukagu baliagarriagoa dela gure produktua dendetan saltzea, horrela bezeroak honen itxura eta funtzionamendua errazago uler ditzake.

Sare sozialetan eta internet bidez berriz, salmentak ez lirateke horrenbestekoak izango, bezeroak ezin baitu produktua ikusi zehazki zer nolakoa den. Hasiera batean beintzat horrela izan beharko luke.

Gure helburua hala ere, bezeroak gustura eta konbenzituta sentitzea da, produktua denda batean ikusi edo internet bidez ikusita. Horretarako ahal dugun irudi eta azalpen egokienak eskeiniko dizkiegu bezeroei bai internet bidez eta baita denda ezberdinetako azalpenen bidez.

Azkenik hainbat taberna eta dendetan jarriko ditugu promozio ezberdinak. Honekin gure produktuaren salmenta bultzazarazteko asmoz.